

# Zinkunegi Sendagillea (1886-1964)

Zinkunegi ta Arruti'tar Jose Indalezio, Errexildarra jaiotez (1886-IV-29), Zarautzen il da (1964-I-9'an.). Valladolid'en ikasi eban medikutzarako, Aya'ko Marzelina Zabala'kin eskondu zan, 1914'n. (Zazpi seme alaba euki dabez, 5 mutil eta 2 neska. Mutillik zarren biak 22 urtegaz il dira, 1939'an zarrena eta 1941'n. bigarrena.) Kato-liko aundia eta euskaltzale txikiagoa ez. Euskaltzaindiko urgazle, Idazle ugaria, itzultzale batez be. Itzulitako lan pillo bat itzi deusku argitaratu barik. Bere buruz egindako batzuk be bai.

Ona emen batzuen izenakin errenkada bat: (1)

1. *Irizpidea*. (Balmes'en "El Criterio". Itzulpena. Argitaratua.)
2. *Erraondoko azkenengo atabalaria*. (Arturo Campion'en "El último tamborilero de Erraondo". Itzulpena. Argitaratua.)
3. *Popatxo*. (Arturo Campion'ena. Itzulpena. Argitaratua.)
4. *Jan Pier Bidart*. (Arturo Campion'ena. Itzulpena. 1914'garren urteko gerrateko ipuia. Argitaratua.)
5. *Pedro Mari*. (Itzulpena. Antzerkia. Argitaratua? Gerra aurretik antzeztu zuten Zarautz'en.)
6. *Oneraspen bidea*. (Itzulpena. Sales'tar Pantzezka Deunaren "Introduction à la Vie Dévote". Argitaratu barik oraindikan.)
7. *Mari Duce*. (Nere jarraibide Jesus Mari'ren Semea Chaminade Aba Gurgarriaren gogoeraz Neubert'tar Emili Aba Miren'dar-rrak egiña. Itzulpena. Argitaratu barik.)
8. *Ferval Apaizaren Ixilpekoa*. (Itzulpena. Eleberria, nobela. Silvain Roche'ren "Le secret de l'Abbé Ferval". *Témoignage Chrétien* aldizkaritik artua. Argitaratu barik oraindikan.)

---

(1) Argitaratuen barri Estornes Lasa'tar Beñat-en artxibutik artu dot. Argi-  
taratu barik dagozanen barri Kepa Zinkunegi Zabala'k bialdu deust, neuk eska-  
tuta, bere aitaren bizitzako zeatasun batzuekin batera, Georgetown'eko Unibersi-  
dadean dagoalako orain Jon Bilbao, ezin izan dot ikusi onen Bibliographi argita-  
ratu bakoa.

9. *Nora eraldu zuten Petrus, maitasunak eta aztikeriak. Aubers'ko Aselea.* (Elezarra. Pantzeratik itzulia, Argitaratu barik.)
10. *Ibarrola.* (Emanuel Robles'en "Montserrat". Arzeluz'tar Ander "Luzear"-ek pantzeratik euskerara itzultzen asi ta Zinkunegi'tar Joseba'k bukatua. Antzerkia, Argitaratu barik.)
11. *Aur eskuntza.* (Gertatzen diranak, Juan Bardina sendagilleak egiña: a) *Aurren biotza*, b) *Agurtzane itz-yario da*, c) *Rakel azaluts (ipokrita)... nai ta ez*, d) *Norberoikeri urratzallea*, e) *Zomorroa, Sorgiñak eta Txerrenak.* Argitaratu barik.)
12. *Yon'ek edaria zergatik utzi zun?* (Itzulpena. Jacinto Benavente'k erderaz egiña, Argitaratu barik.)
13. *Ugorkeriaren aurkako irakaskintza.* (Itzulpena. Dumuid Sendagillearena, Argitaratu barik.)
14. *Franklin'en esanak.* (Itzulpena, Argitaratu barik.)
15. *Kistoa sendian.* (Ezkonduentzat gogaketak, Zinkunegik bere buruz egiña, Argitaratu barik.)
16. *Euskal iztegia.* (Amaitu barik utzi dau.)
17. *Zigor.*
18. *Osasun bidearen amarkuna.* (Zinkunegirena, Argitaratu barik.)
19. *Ume erretzalleak.* (Zinkunegirena, Argitaratu barik.)
20. *Asmatzen?* (Zinkunegirena, Argitaratu barik.)
21. *Edari ugorduneri buruz amar iritzi.* (Zinkunegirena, Argitaratu barik.)
22. *Osasunaren amar aginduak.* (Zinkunegirena, Argitaratu barik.)
23. *Ugorra (alkoola).* (Zinkunegirena, Argitaratu barik.)
24. *Yate edateari buruz esakun yakingarriak.* (Zinkunegirena, Argitaratu barik.)
25. *Aurren osasun ona adiraxten duten aztarnak.* (Zinkunegirena, Argitaratu barik.)
26. *Illak il.* (Ipuia, Zinkunegirena, Argitaratu barik.)
27. *Eusko Abenda. Bere sendotasuna len, orain eta gero.* (Zinkunegirena, Argitaratua.)
28. *Kirolak, ¿ongile ala kaltegarri?* (Zinkunegirena, Argitaratua.)
29. *Keça Deunaren ollaskoa.* (Zinkunegirena, Argitaratua.)
30. *Kozko Muñoa.* (Zinkunegirena, Argitaratua.)
31. *Academia de la Lengua Vasca. ¿Es posible y conveniente su creación?* (Zinkunegirena, Argitaratua.)